


INDUSTRI PRODUKZIOAREN INDIZEA (IPI) 2003ko AZAROA

Euskal AEko industri jarduera %1,3 hazi zen 2003ko azaroan

Datu horiekin, urteko lehenengo hamaika hilabeteen, industri bilakaerak %1,5eko hazkundea metatu du.

EUSTATEk landutako datuen arabera, 2003ko azaroan, %1,3 igo zen balio absolututan, Euskal AEko industri jarduera, 2002ko hil beraren aldean. Lan-egutegiaren balio homogeneotan, urte arteko aldakuntza %1,6ra iritsi zen. Urteko lehenengo hamaika hilabeteetako hazkunde-tasa metatuak, aurreko urteko aldi beraren aldean, %1,5eko hazkundea izan du balio absolutuetan neurtuta, eta %1,2koa, lan-egutegiaren balio homogeneotan neurtuta.

Euskal AEko Industri Produkzioaren Indizearen urte arteko hiruhileroko hazkunde zuzendua, 1998-2003



(*) 2003ko urri-azaroko urte arteko hazkunde zuzendua

Iturria: EUSTAT

2003ko azaroan, urte arteko aldakuntzarik positiboak, balio absolututan, sektore hauei egokitu zaizkie: petrolio finntzea (%43,8), material elektrikoa (%7,0), kautxua eta plastikoa (%5,1) eta elikagai-industria (%2,5) arloei, besteak beste.

Urte arteko hazkunde-tasa negatiboak, berriz, honako hauek izan dituzte: larruaren eta oinetakoen industria (%-33,9), ehungintza eta jantzigintza (%-11,3), zurgintza (%-5,7) eta bestelako manufakturak (%-5,1) arloek, batik bat.

Ondasunen helburu ekonomikoka, 2003ko azaroan, igo egin dira bitarteko ondasunen (%2,9) urte arteko tasak, baina jaitsi egin dira kontsumo-ondasunen (%-0,5) eta ekipo-ondasunen (%-3,0) tasak.

2003ko lehenengo hamaika hiletako balantzea

Urteko lehenengo hamaika hilabeteetan, hazkunde metatu handienak, balio absolututan, sektore hauei egokitu zaizkie: petrolio finntzea (%24,0), kimika-industria (%9,0), material elektrikoa (%6,3) eta kautxua eta plastikoa (%6,1) arloei.

Tasa metaturik negatiboenak, berriz, honako hauek izan dituzte: larruaren eta oinetakoen industria (%-15,0), bestelako manufakturak (%-4,5), garraio-materiala (%-1,1), ez-metalezko industria (%-0,8) eta papera, argitalpena eta arte grafikoak (%-0,7) arloek.

Lehenengo hamaika hilabeteetako aldakuntza metatuak hazkundera izan du bitarteko ondasunetan (%2,5), baina kontsumo-ondasunak eta ekipo-ondasunak %2,0 eta %0,8 jaitsi dira, hurrenez hurren.

Lurralde historikoka, azaroko indizean urte arteko hazkundeak izan dira Araban eta Gipuzkoan (%6,3 eta %3,4, hurrenez hurren); Bizkaian, berriz, indizea %2,9 jaitsi da. Urteko lehenengo hamaika hiletan hiru lurraldeek izan dituzte hazkunde metatuak, baina aldeak ere izan dira: aurreko urteko aldi beraren aldean, Gipuzkoan %3,0 hazi da, baina, Araban eta Bizkaian, oster, neurritsuago, %0,1 eta %0,8ko hazkundeekin, hurrenez hurrez.

Taula: 2003ko AZAROA. Euskal AEko Industri Produkzioaren Indizearen aldakuntza-tasak (%)

Kontzeptua	Aurreko urteko hil beraren aldean		2002ko urtarril-azaroko tasa metatua		2003ko urtarril-azaroko tasa metatua	
	originala	zuzendua(*)	originala	zuzendua(*)	originala	zuzendua(*)
Indize orokorra: Euskal AE	1,3	1,6	-1,3	-1,1	1,5	1,2
Araba	6,3	6,6	0,0	0,2	0,1	-0,2
Bizkaia	-2,9	-2,7	-0,7	-0,5	0,8	0,6
Gipuzkoa	3,4	3,7	-2,5	-2,3	3,0	2,7
Indizeak helburu ekonomikoka- Euskal AE						
Bitarteko ondasunak	2,9	3,3	0,1	0,3	2,5	2,2
Kontsumo-ondasunak	-0,5	-0,5	0,6	1,0	-2,0	-2,3
Ekipo-ondasunak	-3,0	-2,9	-2,9	-2,7	-0,8	-1,2

(*) lanegunez zuzendua

Iturria: Eustat

Argibide gehiagorako:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tlf:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 E-maila: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Luis Carlos Jorge Alonso

Tlf:+34-945-01 75 14 Faxa:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es